

## 2. Internet, sareak, telefonoa...

### AZTERTZEKO ARLOA

Teknologia berriek erabat eraldatu dute azken urteotan herritarren arteko komunikazioa. Bereziki belaunaldi gazteen artean, baina baita helduen artean ere: telefonoa, aplikazioak, whatsapp eta antzeko mezularitza aplikazioak...

Interneteko edukiak zein hizkuntzatan kontsumitzen ditugun ere aztertzea da, edo herriko eragileek, elkarteek, enpresek eta abar webguneak zein hizkuntzatan dituzten ere. Herrian zenbat webgune daude erregistratuta? Horietako zenbat dira euskaraz? Zenbatek dute .eus domeinua. Sare sozialetan zein hizkuntzatan aritzen gara? Zein da hartzailea eta, beraz, zein hizkuntza hautatzen dugu?



### ISPILUARI BEGIRA

#### **SARE SOZIALAK: askorentzat, plazarik ohikoena da gaur egun. Zein hizkuntzatan aritzen gara ordea?**

Twitter, Instagram, Facebook, Youtube, Whatsapp, Telegram... eta antzeko gehienek ez dituzte hamar urte baino gehiago. Gehienek ezinbesteko sareak edo aplikazioak bihurtu dira, eta plazarik ohikoena da askorentzat. Zein hizkuntzatan aritzen garen beste kontu bat da, ordea.

#### **GALDERAK:**

- > Sare sozialetan zein da gure ohiko hizkuntza? Idazten dugunean, zein hizkuntzatan aritzen gara?
- > Partekatzen ditugun estekak, oro har, zein hizkuntzatan dauden albiste edo webguneetakoak dira?
- > Whatsapp, Telegram eta antzeko mezularitza aplikazioetan, oro har, zein da hautatzen dugun hizkuntza? Euskaraz aritzen gara?
- > Youtube eta antzekoetatik jasotzen ditugun edukiak, zein hizkuntzatan ikusten ditugu?
- > Lanerako edo ikasketetarako wikipedia edo antzekoak erabiltzen ditugunean, zein hizkuntzatan dauden edukiak erabiltzen ditugu?

#### **WEBGUNEAK: herriko elkarteetan, eragileen eta enpresen webguneak. Euskaraz al daude?**

Herriko erakundeetan, tabernetan, elkarteetan, enpresen eta antzekoen webguneak euskaraz al daude? Zein hizkuntza lehenesten dute webgunean?

#### **GALDERAK:**

- > Herrian zenbat webgunea daude erregistratuta?
- > Horietako zenbat daude euskaraz?
- > Zenbatek dute .eus domeinua?



## ALORRA: INTERNET

**Helburua:** Aztertzea zein den herriko elkarte, enpresa eta eragileen hizkuntza sare sozialetan eta webguneetan, eta ahal bada hizkuntza ohiturak aldatzea.

**Aztergaiak:** Herritarren eta herriko eragileen sare bideetako kontuak, eta webguneak.

**Eremua:** webguneak, sare sozialak eta mezularitza aplikazioak.

**Ardua:** Pertsonala, kolektiboa zein erakunde publikoena.

**Urratsak:**

- Aztertu herrian erregistratuta dauden webguneen hizkuntza.
- *.eus* domeinuaren berri eman.
- Herriko eragileak (erakundeak, elkarteak, negozio pribatuak edota herritar ezagunak) sarean euskaraz aritzeko lanketa berezia.
- Mezularitza aplikazioetan erabiltzen den hizkuntzaren inguruko hausnarketa, eta euskaraz aritzeko konpromisoa.

## ERAGIN BURUARI

### Sare sozialak

- Zein hizkuntza lehenesten dugu sare bideetan?
- Facebook, Instagram, Twitter eta abar. Zein da gure iturria edo hartzaillea sare bideetan, eta zein hizkuntzatan aritzen dira?
- Whatsapp, Telegram eta antzeko mezularitza aplikazioetan, zein hizkuntza lehenesten dugu oro har? Euskaraz aritzen al gara euskaldunen artean?

### ERREFERENTZIAK

- Herritar ezagunek zein hizkuntza erabiltzen dute sarean?
- Herriko talde, elkarte, taberna, denda, enpresa eta antzekoek zein hizkuntzatan aritzen dira sarean?
- Zein dira herriko eskolen hizkuntza ohiturak sarean? Zein hizkuntzatan dituzten webguneak? Zein lehenesten dute?

### Webguneak

- Oro har, zein da herriko webguneen hizkuntza? Euskaraz al daude?
- Herrian erregistratutako zenbat webgunek dute *.eus* domeinua?

### ERAKUNDE PUBLIKOAK: UDALAREN IRUDIA

- Udala zein hizkuntzatan aritzen da sare bideetan?
- Zein da udalaren hizkuntza politika webgunean zein sare bideetan informazioa zabaltzerakoan?



**I+D**  
**IDEIAK**

- Sare sozialetan euskara sustatzeko ekimenak, zozketak, lehiaketak, eta antzekoak antolatu, udalaren edo herriko eragileen laguntzarekin.

- Herriko denda, taberna, elkarte eta antzekoekin lanketa berezia egin webgunea euskaraz izan dezaten: gutuna bidali, bilera egin...

- *.eus* domeinuaren aldeko lanketa. Gutuna, bilera... "Nik ere nire udala, elkarte, taldea edo dena delakoa *.eus* izan dadin nahi dut".

- Whatsapp eta antzekoetan euskaraz aritzeko ohitura bultzatu...

---

---

---